

BALOREZKO PROPOSAMENA



Proiektu honekin hasi ginenean konturatu ginen gaur egun gizartea, zehazki gazteok, ez dugula ulertzen mundua krisi ekologiko oso larrian dagoela eta globalizazioaren eta beste hainbat faktoreen ondorioz kulturak, hizkuntzak zehazki, galtzen ari direla. Gainera, uste dugu gaur egun existitzen den ikasleen harremanak irakasleekiko ez direla izan daitezkeen bezain onak, irakasleekiko errespetua galtzen ari delako eta institutuetakiko ikasgeletan gero eta ikasketa-giro okerragoa dagoelako.

Hori guztia kontuan hartuta, proiektu hau antolatu dugu ingurumenaren mantentzeari buruzko kontzientzia falta, euskararen erabilera falta eta janari zaborraren gehiegizko kontsumoa zuzentzeko. Beraz, taldean lan egiten ikastea bultzatzen dugu, ikasleen eta irakasleen arteko giroa hobetzeko eta hauen arteko komunikazioarekin laguntzeko.

Gure elkartearen ezaugarriak dira elkartea sortzeko erabili ditugun balio moralak. Gainera, gizarte-ongizateari ematen diogu lehentasuna onura ekonomikoen gainetik. Gure elkarteak baratzetik atera berriak diren elikagai ekologikoak ekoizten ditu, eta bezero txikiei saltzen dizkie, baita, sukaldaritza-eskolei, produktuaren kalitateari lehentasuna ematen baitiete. Alegia, irakasleen eta ikasleen arteko lan bateratuaren bidez lortutako produktuak salduko genituzke, arrazoizko prezioan, bizimodu osasungarria sustatzeko eta osasuntsu jateak ez duela beti garestia izan behar erakusteko. Horrela, irakasleen eta ikasleen arteko harremana ere indartuko genuke, gero ikasgeletan islatuko litzatekeen giro ona sortzeko; izan ere, irakasleen eta ikasleen arteko harreman ona funtsezkoa da ikasleak institutuan eroso sentitzeko eta haien ikaskuntza ezin hobea izateko. Azken finean, eskola-proiektu honek, gure arteko bizikidetzaren indartzeaz gain, bizi garen planeta zaintzearen garrantzia erakutsiko lieke ikasleei eta irakasleei. Gainera, garapen iraunkorreko helburuekin konprometituko litzateke; izan ere, gure proiektu txikia diseinatuta dago ahalik eta gehien berrerabiltzeko, haziak landatzeko erabiliko genukeen kafe-makinaren kartoizko edalontzietatik gure uzta saltzeko erabiliko genukeen orri kaxetaraino.



Bestalde, gure proiektua hemendik gutxira jar liteke martxan, proiektu sinplea baita; proiektu horren atazek ez dute konplexutasun handirik, eta nahiko denbora laburrean egin daiteke. Are gehiago, ikastetxeko Agenda 30 eta Hizkuntza Normalkuntza bezalako elkarteek babesa eta oniritzia eman digute.



Guzti hau kontuan izanda, gure proiektuarekin ondo identifika daitekeen eta gure helburuei buruzko eslogan bat aztertu eta pentsatu genuen bitartean, esaldi hau aurkitu genuen: "bihur dezagun baratze euskararen basamortua", *Hiruka* aldizkariaren azal batean agertzen zena, oraingoan erabiltzen utzi zigutena.

Beraz, esaldi hori eslogan gisa hartuta, irudikatzen gaituen logoa besterik ez zaigu falta, eta gure ekimena institutuarekin erlazionatzea erabaki dugu, hori baita gure proiektuaren zutabeetako bat. Horregatik, gure logoa hurrengoa izango litzateke:

